[594
ardatza
2021eko abendua

ehne
euskal herriko nekazarien elkartasuna

Herriak

UAGA pide optimizar la capacidad hidráulica de los cauces

Sektoreak

Mayor rendimiento graso en la campaña de la oliva en Nafarroa

La Cadena Alimentaria se tensa y el sector se moviliza

Reportaje · Repaso de los acontecimientos del año 2021

4

SAKONEAN · A FONDO
2021 urtean zehar gertatutakoen errepasoa

11

HERRIAK
Osasun larrialdi egoera berrezartzearekin batera, feria ugari bertan behera

16

REPORTAJE
Geneeetika, ardiak hobeeetzeko

22

EL SECTOR
Mayor rendimiento graso en la campaña de la oliva de Nafarroa

[BESTEEK ESANA · OPINIÓN · WEB]

"Akatsetatik ikasiz" 8
·SAGRA EIZMENDI

[ZER BERRI · ES NOTICIA]

Goi tentsioko lineen kontrako mugimendua berpiztu da 9
El Congreso de los Diputados da luz verde a la Ley de Cadena Alimentaria 10

[HERRIAK]

Ticketbai bi kasutan salbuesteko eskatu zaio Ogasunari 12
Seguimos año tras año sin limpiar los ríos y arroyos 13
Los daños provocados por jabalíes se acentúan en Nafarroa 14

[SEKTOREA · EL SECTOR]

Los sindicatos agrarios exigen que se cumpla la Ley de Cadena Alimentaria 20
El Plan Estratégico estatal de la PAC, en información pública 21
UAGA participa en unas jornadas sobre planificación territorial y alimentación 24

[ZERBITZUAK · SERVICIOS] 30

ardatza
[594
Una publicación de **EHNE**
DL: VI382-1982

Erredakzio batzordea: Fermin Gorraiz, Garikoitz Nazabal eta Jabi Torre
Kazetariak: Blanca Sanchez, Natxo Matxin eta Lorea Muguruza

Harpidetzak (suscripciones): (945) 27 54 77 ardatza@ehne.eus
Edita: Lurkoi S.L.
Diseño: www.vinaixa.biz

Impresión: Gertu.
Distribución: Gertu
E-mail: ardatza@ehne.eus
Publicidad: Laura Paris publi@ehne.eus

ehne euskal herriko nekazarien elkartasuna

EDITORIALA

"Haserre eta nazkatuta gaude. Honaino iritsi gara. Mobilizazioa gure geneEHNEtikan dago"

"Mobilizazio OROKORRA hasten da, Omikronekin anestesiatutako garai honetan"

GEEHNETIKA

1933. Gipuzkoako Aldundiak argitaratutako Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Irakurketak liburuan genetikaz eta hautapen naturalaz hitz egiten zen; Abeltzain onak beretzako kontserbatuko ditu, eta ez ditu salduko harik eta ez baditu soberan, etxean aukeratutako animalia hoberenak. Ardatza honetan Ardi proiektuaz hitz egiten dugu, hobekuntza genetikorako ardien DNA barneratzen duena. Klima aldaketara hobeto egokitzen direnak bilatzen dira. Kontuz. Datuekin hasi eta genetikoki eraldatutako organismoekin amaitzen dugu, baita klonekin ere. Dolly ardiaz gogoratzen zarete?

2021. Espainiako Kongresuaren Bilkura-liburuak, abenduaren 2an, elikatze-katearen funtzionamendua hobetzeko neurriei buruzko 12/2013 Legearen aldaketa jasotzen du, eta, bide batez, 2019/633 EB Europako zuzentarauaren transposizioa egiten du, nekazaritzako elikagaien hornidura-katean enpresen arteko harremanetan jardunbide komertzial desleialei buruzkoa. Hara! Merkataritza-praktika desleialak daude. Guk ondo dakigu hori, eta gehiegizko praktika horiek kontsumitzaileei ezagutarazi nahi dizkiegu. Haserre eta nazkatuta gaude. Honaino iritsi gara. Mobilizazioa gure geEHNEtikan dago.

Aurreko editorialean beroketa lokala aipatzen genuen. Motz geratu gara. Gerra-danborrak entzuten dira Madrilen. Mobilizazio OROKORRA hasten da, Omikronekin anestesiatutako garai honetan.

GEEHNETICA

1933. En el libro "Lecturas Agropecuarias" para uso de las escuelas rurales, editado por la Diputación de Gipuzkoa de entonces, ya se hablaba de genética y selección natural; "el buen ganadero conservará para su casa, no venderá hasta que le sobre en número, las crías de los animales seleccionados y mejores que posea".

En este Ardatza hablamos del proyecto Ardi, que incorpora el ADN de las ovejas para la mejora genética. Se buscan ovejas que se adapten mejor al cambio climático. Ojo, que se empieza con datos y acabamos con organismos modificados genéticamente e incluso de clones. ¿Quién no se acuerda de la oveja Dolly?

2021. El libro de Sesiones del Congreso Español, del día 2 de diciembre, recoge la modificación de la Ley 12/2013 de medidas para mejorar el funcionamiento de la cadena alimentaria y, de paso, transponen la directiva europea UE 2019/633 sobre prácticas comerciales desleales en la relaciones entre empresas en la cadena de suministro agroalimentario.

¡Anda jaleo! Hay prácticas comerciales desleales. Nosotras lo sabemos muy bien y queremos dar a conocer estas prácticas abusivas a los consumidores. Estamos de mala leche y hartos. Hasta aquí hemos llegado. La movilización esta en nuestra geEHNEtica.

En el anterior editorial hablábamos de calentamiento local. Nos hemos quedado cortos. Se oyen tambores de guerra en Madrid. Comienza una movilización GENERAL en esta época anestesiada por el Ómicron.

EDITORIAL

"Estamos de mala leche y hartos. Hasta aquí hemos llegado. La movilización está en nuestra geEHNEtica"

"Comienza una movilización GENERAL en esta época anestesiada por el Ómicron"

Arma berberekin aurre egingo diogu

2021 ha comenzado y terminado al calor de las brasas del año anterior. Cuando presumiblemente creímos que habíamos pasado el peor capítulo de la pandemia del Covid-19, como en una galerna, hemos ido de ola en ola y de una situación de emergencia a otra. Hemos vivido con incertidumbre el año 2021 Pero como dijo Marco Aurelio: "nunca permitas que el futuro te perturbe, lo encararás si debes hacerlo, y con las mismas armas con las que hoy combates el presente" ¡Feliz año nuevo a todos y todas!

2021a aurreko urtearen kedarren berotan hasi eta bukatu da. Ustez covid-19aren pandemiaren kapitulurik okerrena pasata ginela uste izan genuenean, itsasoko enbaten antzera olatuz olatu ibili gara eta larrialdi egoera batetik bestera. Ziurgabetasunez bizi izan dugu 2021. urtea. Elkarrengana gerturatzeko zalantzez, auzokoen aurpegiaren erdia soilik ikusiz, azokak egingo diren edo ez ziurtasunik eduki gabe.

Urtea ardi esnea erosten duten hainbat industrien jokabidea salatuz hasi genuen. Batzuentzako era bateko kontratuak, besteentzako bestelakoak eta gutxiago ordaintzeko gogoz, joko makurrean aritu ziren.

Esne sektorearen egoera lazgarriak ere ez du etenik. 2021ean 'Aski da' esan genuen traktoreak kalera aterata. Saltoki handiek ustez keinua egin zuten bi xentimo igoz kontsumitzaileentzako salneurria, baina inondik inora ez zuten eskatzen zen gutxieneko preziora igo: 0,70€. 2022an ere borrokan segiko dugu. Sardeak altxa ditugu eta ez daukagu haiek jaisteko asmorik!

La puesta en marcha de la Ley de Cadena Alimentaria es una buena noticia

Horrelako jokabideak saihesteko asmoz jaio zen Elikagai Katearen legea, urte amaieran jaso duena Diputatuen Kongresuan argi berdea. Albiste ona den arren, legea betearaziko duen figurak zorrotz egin beharko du bere lana, bestela, zenbaitzuri lehengo lepotik aterako baitzaie burua .

ARMA BERBEREKIN

Marco Aureliok behin esan omen zuen: "Ez utzi inoiz etorkizunak nahas zaintzan, aurre egingo diozu, egin behar baduzu, eta gaur egun orainari aurre egiteko erabiltzen dituzun arma berberekin". Eutsi arma horri 2022an ere!!

PENTSUEN IGOERA JASANEZINA. Mundu mailako zerealen merkatuak gora eta gora egin du 2021. urtean. Haren uberan joan da pentsuen prezioa ere. Abeltzain askorentzako jasangaitza bilakatu den kolpea eragin du igoera horrek eta oihua are eta ozenagoa egin du. EHNE eta Enbaren baitako baserritarrek prentsaurrekoa egin genuen, gure produktuen prezioak defendatuz eta jendarteari egoera azaltzeko asmoz.

- Pentsuen prezioaren gorakadak kolpe gogorra eman dio Euskal Herriko abeltzaintzari
- En septiembre realizamos una manifestación para reclamar precios dignos para la uva y el vino

PRECIOS JUSTOS PARA LA UVA. Iniciada ya la vendimia en el mes de septiembre todas las organizaciones agrarias de la DOC Rioja convocamos una manifestación en Logroño para reclamar unos precios dignos para la uva y el vino de la DOC Rioja ante la ausencia de contratos y precios dignos para el sector.

ESNEAREN PREZIOAREN DEFENTSAN, TRAKTOREAK KALERA. Gipuzkoako EHNEk Enbarekin batera, esne sektorea bizitzen ari den egoera lazgarria salatzeko traktoreak atera zituen kalera. Saltoki handiei esne litroa gutxienez 0,70 euroan saldu behar dutela gogorarazi zitzaien.

NUEVA EJECUTIVA DE EHNE-NAFARROA. El 1 de octubre se eligió a la nueva Ejecutiva de EHNE-Nafarroa. Patxi Gorraiz Etxamendi (presidente), Patxiku Irisarri Elizagoien (secretario general) y los vocales Josu Jorajuria Baztarrika, Javier Osés Otxandorena, Patxi Encaje Araña, Antonio Alba Baya, Diego Alonso Moreno y Alberto Benito Martínez la componen.

GANAMOS EL ARBITRAJE CON AZUCARERA. En marzo, la Corte de Arbitraje de la Cámara de Comercio de Madrid dio la razón a COAG y UAGA en la demanda contra Azucarera por haber reducido unilateralmente el precio de la remolacha pactado en el AMI. La industria tuvo que indemnizar a los agricultores que entregaron remolacha en la campaña 2019-2020 hasta llegar al precio pactado.

Ildoak

1 ***Bertakoa*** *-Gizarteak bertako produktuen aldeko apustua egin dezan hainbat ekimen burutu dira.*

2 ***Ikusgarritasuna*** *- Aldarrikapen, baita haserrea erakutsiz ere, gure oihartzuna entzun da.*

3 ***Burujabetza*** *-Elikadura burujabetzaren bidean nekazarien beharra gizarteratu da hainbat jardunaldietan.*

Abuztuan traktoreak atera genituen kalera esne sektorearen egoera zaila salatzeko

TICKETBAI PROGRAMAREN EZARPENA, ATZERATUTA. Gipuzkoako EHNE, Ticketbai programa lehen sektorean ezartzeak dakartzan zailtasunez oharturik, egokitzapenerako denbora gehiago lortzeko borrokan aritu da beste hainbat eragilerekin batera.

AROZTEGIA. Una representación de EHNE-Nafarroa participó en la acampada que se llevó a cabo en la zona baztandarra de Aroztegia, donde se quiere construir un proyecto urbanístico especulativo que acabaría con una amplia superficie de terreno destinado a uso ganadero.

ELECCIONES A LA OIPVR Y EL CONSEJO REGULADOR DEL RIOJA. Este año se han celebrado elecciones para renovar la representación de las Organizaciones en la Interprofesional del Rioja. UAGA seguirá contando con un vocal en este organismo, donde seguirá defendiendo los intereses de Rioja Alavesa y sus viticultores.

ACTIVIDAD SINDICAL CONTINUA. En UAGA hemos seguido en contacto permamente con las distintas administraciones, participando en reuniones e informando, a través de comparecencias en Juntas Generales y Parlamento Vasco, sobre la situación del sector y sus necesidades más prioritarias.

'BASERRITIK ZURETZAT, ZENTZUZKO MERKATARITZA'. Baserritarrek beren produktuagatik bidezko prezioa jasotzeko aukera eskaintzen dion proiektua da. Ederto elkartearekin elkarlanean harategi eta saltoki lokalen sarea sortu da bertako produktua kontsumtzailearen eskura jartzeko.

MACROPROYECTOS DE ENERGÍA RENOVABLE. EHNE-Nafarroa ha colaborado a lo largo de 2021 con los diferentes colectivos que se oponen a la instalación de macroproyectos de energías renovables, ya que las multinacionales que impulsan estas iniciativas quieren hacerse con terrenos de suelo fértil donde colocar especialmente plantas fotovoltáicas.

AKATSETATIK IKASIZ

Iritzi artikuluak
Cartas de opinión

Osasun larrialdian sartu gaituzte berriz ere. Sentsazioa daukat osasun larrialdian ginela Covid-19a eta haren modalitate guztiak iritsi aurretik. Izan ere, osasunak esparru asko barne biltzen baititu.

Osasuntsu egoteko badira oinarrizko hainbat alor eta horietako bat elikadura da. Ongi elikatzen denak gaixotasunak pairatzeko aukera gutxiago ditu. Inguratzen gaituen airearen kalitateak eta urak ere badu zerikusirik, bizimoduak ere bai, baina oinarrizkoenetakoa da elikadura. Hori da behintzat sendagileek diotena. Eta eremu honetan gizartea aspaldian dago osasun larrialdian.

Agintarien aldetik, benetako borondatea balego herritar guztientzat elikagaiak eskura jartzeko, bertakoak eta osasuntsuak –ahoa hitz horiekin bete-bete eginda aritzen baitira mikrofonoen aurrean- baserritar gehiagoren beharra legoke. Izan ere, egun baserritarrok Euskal Herrian sortzen dugunarekin jendartearen oso kopuru txikia elikatuko baikenuke.

Alienatu gaituzte elikagaien jatorria arrotza bilakatzeraino. Super-hiper-mega guztietako apalak "elikagaiez" beteta ikusten ditugu eta ez diogu geure buruari galdetzen nola iritsi diren bertara. Gezurrezko lasaitasuna dugu apalak beteta ikustean. Eta benetako larria sartzen zaigu hutsak daudela ikustean –oroituko zarete komuneko paperarekin gertatu zenaz itxialdian sartu aurretik-.

Energia iturrien agortzea eta klima larrialdia ditugu bide lagun gainera. Apalak betetzen dituzten munduaren punta bateko zein besteko produktuek aurki ezingo dute bide hori egin, eta hala egiten badute haren kostua ongi baino hobeto ordaindu beharko dugu. Zergatik ez diogu gure buruari oraindik galdetu dependentzia jasanezin horretatik ateratzeko zein pauso ematen ari garen? Zergatik utzi behar diegu elikagaiak sortzeko, aire garbia lortzeko, zein ur gardenak izateko diren eremuak hormigoiz jositako poligono eolikoak izaten edo udan bero jasangaitza botako duten plaka fotoboltaikoen desertuak egiten?

Eta portzierto, polígono eolikoak eta desertu fotoboltaikoak egiteko materiala nondik datoz? Agortezinak dira erabiltzen diren materialak? Betiko ote dira? Bada... munduaren beste eremu batzuetatik garraiatu behar dituzten materialak dira eta agortzeko bidean jarriko ditugunak ere bai. Eta ez... ez dira betiko, biziraupen murritza duten eremuak dira... Beraz, zein da soluzioa? Bada, beste era batera bizitzen ikasten hasi beharra daukagula gaurtik hasita. Energia gutxiago xahutuz... gertuko elikadura bermatzeko estrategiak sortuz... eta dagoeneko gainbeheran den sistema honek sortutako akatsetatik ikasiz.

SAGRA EIZMENDI

Web & Lectura

www.ehne.eus

EHNE Konfederazioaren webgunean lehen sektoreko erreferentzia den sindikatuari eta askotariko jarduerei buruzko informazioa jaso daiteke: nekazaritza, abeltzaintza, ingurumena, herriak, azpiegiturak, merkatua... Nahi adina informazio zure eskura.

EHNE sare sozialetan. Asko dira sindikatuko kide ez izan eta EHNEren aktualitatea sare sozialen bitartez jarraitzen duten kideak. Milaka jarraitzaile ditu EHNEk honako sareetan: www.facebook.com/PrentsaEHNE orrian. Twitterreko perfila @Ehnesindikatua

Aspecto de una de las zonas inundadas por el río Ebro. (Jorge Eneriz)

Graves pérdidas agrícolas en la Ribera navarra como consecuencia de las riadas

Se calcula que hasta un 80% de la producción hortícola invernal no se ha podido recolectar en poblaciones limítrofes con el Ebro

Las inundaciones de diciembre han provocado daños en infraestructuras, caminos y cierres de parcelas en gran parte de Nafarroa, pero ha sido la Ribera la zona más afectada. Hasta un 80% de la producción hortícola invernal se ha perdido al coincidir la riada con que aún no se haya recolectado la mayor parte de la cosecha de brócoli, alcachofa o coliflor.

La situación deja muy tocado a este sector, que ve cómo se ha esfumado su principal fuente de ingresos anual e incluso tiene que afrontar un negro panorama a futuro ante la imposibilidad de utilizar a corto plazo esas mismas tierras para otros cultivos, dada la situación en la que han quedado tras las avenidas de los ríos.

La recuperación económica de dichos productores queda a expensas de las medidas que se adopten desde las instituciones, debido a que la cobertura de los agroseguros no tiene una duración tan prolongada como para abarcar hasta la época de recolección de estos cultivos. También habrá consecuencias de tipo laboral, en lo que se refiere al personal contratado para recolectar estas hortalizas, que ahora se queda sin trabajo, además de en otros sectores, pues tras la cosecha, los ganaderos aprovechaban las sobras vegetales que quedaban en los campos como alimento para sus animales.

Desde EHNE-Nafarroa ya se ha solicitado a las instancias competentes que se deben llevar a cabo actuaciones puntuales en los cauces de los ríos que sean compatibles con su conservación medioambiental, como la retirada de masa vegetal muerta, además del reacondicionamiento de las motas y defensas ante futuras avenidas.

El Congreso de los Diputados da luz verde a la Ley de Cadena Alimentaria

Se necesitan los índices de precios referenciales cuanto antes

Prezioen indizea lehenbailehen ezarri beharra nabarmendu dute sektoreko eragileek

El pasado 2 de diciembre el Congreso de los Diputados dió luz verde a la Ley de Cadena Alimentaria tras meses de tramitación y cambios. El sector considera que la nueva ley es útil, y "marca un nuevo campo de juego, pero no supone la solución a todos los problemas y exigimos que se cumpla, que no se permitan mecanismos o rendijas para esquivar la regulación". Asimismo, se necesita que las herramientas que se contemplan en la Ley funcionen y que sean inmediatas, tanto las inspecciones de oficio, como las sanciones que se deben conocer por la opinión pública. Además se pide celeridad para articular los observatorios de la cadena y los índices de precios referenciales.

El objetivo de la Ley

La Ley recoge un marco de buenas prácticas, regulaciones y sanciones. Define la relación entre todos los que participan en el sector de la alimentación, desde productores, las cooperativas agrarias, la industria y fabricantes, hasta la distribución. El objetivo de esta regulación es que haya transparencia en la formación de precios y aumentar la protección de los eslabones más débiles. A su vez, trata de poner freno a prácticas consideradas anticompetitivas, como la 'venta a pérdidas'.

Principales medidas

Los actores de la cadena siempre tendrán que sellar sus contratos por escrito y reflejar los costes a los que se enfrentan. Los contratos constarán en una plataforma, de forma que si hay algún incumplimiento o denuncia, los responsables de supervisar la cadena (CCAA o la Agencia de Información y Control Alimentarios, AICA) podrán acceder a los contratos. La ley permite "elaborar, publicar y actualizar periódicamente índices de precios y de costes de producción mediante el empleo de los criterios que reglamentariamente se determinen que, en cualquier caso, deberán garantizar la transparencia y objetividad en la formación de estos índices".

Elikadura katearen legea betezeko tresnek bat-batekotasuna eta eraginkortasuna behar dute

Asimismo, tiene como objetivo incorporar los costes a los que hace frente cada uno de los integrantes, de esta manera se garantiza que el precio final, el que pagan los clientes al hacer su compra, no sea inferior al anterior. Mediante la última modificación de la Ley, los costes que pueden imputar los y las agricultoras y ganaderas no solo serán los de las semillas, la energía o los gastos veterinarios, sino que pueden añadir los costes de los productos financieros contratados para su actividad y la mano de obra asalariada, junto con su propio trabajo.

Sanciones

Las sanciones serán públicas. Las podrán imponer las distintas administraciones con competencias en cada uno de los campos que abarca la Ley. Además las denuncias ante las comunidades autónomas o la AICA pueden ser anónimas y eso puede facilitar, en caso de que se incumplan los contratos, que los afectados se atrevan a dar el paso.

Osasun larrialdi egoera berrezartzearekin batera, feria ugari bertan behera

Urretxuko eta Zumarragako udalak izan dira lehenengotariko erakundeak azokak gelditzen

Osasun Larrialdi egoera ezarri aurretik, hainbat udalerritan agertzen hasi ziren kutsatu datuen ondorioz, feriak bertan behera uzten hasi ziren erakunde lokalak. Horien adibide izan ziren Urretxuko eta Zumarragako udalak abenduko Santa Lutzi feriarekin. Ez zuten arriskurik hartu nahi izan eta azaroaren azken astean azoka ospetsua ez zela egingo publiko egin zuten: "Feriak sortzen dituen jende pilaketa handiak ekidite aldera eta osasuna lehenetsiz bi udalek bat egin dugu erabakia hartzerakoan".

Beste horrenbeste gertatu zen Sagarraren azokarekin Errezilen ere.

ERRZEIL SAGARRAREN AZOKA

Abenduaren 5ean "Errezil Sagarraren Azoka egitekoak ziren Errezilen, baina egungo osasun egoera dela eta, antolatzaileek azokaren eguna atzeratzea erabaki dugu".

Canceladas numerosas ferias tras el restablecimiento del estado de alarma sanitaria

Tantaka tantaka abenduan zehar antolatuta zeuden azoka eta feriak ez zirela egingo adierazi zuten eta tartean baita Donostiako Santomas egun handia ere.

Ticketbai bi kasutan salbuesteko eskatu zaio Ogasunari

BEZaren nekazaritzako araubide berezian daudenen arteko fakturak egiten direnean, salbuetsita gera daitezen galdegin da

Gipuzkoako EHNE, Enba eta Lurgintza baita Abelur gestio etxeek ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari bi kasu zehatzTicketbai programatik kanpo gera daitezen eskatu diote. Alde batetik, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren nekazaritza, abeltzaintza eta arratzaren araubide berezian dauden bi baserritarren arteko fakturak egiten direnean salbuespena ezar dezaten galdegin dute. Eta bestetik, autokontsumorako fakturak egiten direnean, aipatu programan aintzat ez hartzeko eskatu dute.

Se ha solicitado a la Hacienda gipuzcoana que que tenga en cuenta la particularidad del sector

AUTOKONTSUMORAKO FAKTURAK PROGRAMAN EZ SARTZEKO ESKATU DUTE

Hainbat aldiz azaldu zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari lehen sektoreak dituen berezitasunak eta Ticketbai bezalako programa bat ezartzerako orduan sor daitezkeen gorabeherak anitzak izango direla. Izan ere, lehen sektorea bakarra den arren, bere baitan aniztasun handia baitago, bai egitura aldetik, bai ekoizpen aldetik, baita bai komertzializazio aldetik eta baita beste hamaika esparrutan ere.

'Gure lurra, sembrando futuro' laugarren jardunaldia egin dute

Laugarren aldiz 'Gure lurra, sembrando futuro' jardunaldia antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Kursaalen. Azaroaren 23ko ekitaldian honako hausnarketa zabaldu zuen: "Azken urte eta erdian bizi izan dugun egoerak nabarmendu egin du kalitate handiko eta, jakina, hurbileko elikagaiak izatearen garrantzia, eta, era berean, gure gizartearen ongizatea hobetzeko natura-ingurune zainduaz gozatzeko beharra.

El 23 de noviembre se celebró la cuarta jornada de 'Gure lurra, sembrando futuro'

Gipuzkoako lehen sektoretik, galdera garrantzitsu bat egin nahi diegu herritarrei: "Ezinbestekoak al gara?". Gure baserritarrek gizarte honetan egiten duten lanaren garrantziaz gogoeta egin eta kontzientzia hartu behar dugu".

GURE LURRA, JARDUNALDIA

Seguimos año tras año sin limpiar los ríos y arroyos

UAGA pide optimizar la capacidad hidráulica de los cauces

Un año más el sector primario y los pueblos cercanos a las riberas de los ríos han vuelto a sufrir las consecuencias de las riadas. Unas inundaciones provocadas por las constantes precipitaciones que, si bien podrían mejorar su previsión con una gestión eficiente de los embalses, no se solucionarán mientras no se aborde la regulación hídrica de los cauces.

Desde hace ya mucho tiempo las instituciones están primando el mantenimiento ecológico de los ríos y la salvaguarda de las zonas urbanas a costa del sector primario, que se siente abandonado a su suerte. UAGA exige abordar de una vez por todas el mantenimiento de los ríos, optimizando la capacidad hidráulica de los cauces y dejando que los ríos tengan una sección efectiva que permita circular los caudales. Si bien el agua recogida estas últimas semanas ha sido excepcional, que se repitan constantemente inundaciones demuestra que algo no se está haciendo bien en la gestión de nuestros recursos hídricos.

Las inundaciones se repiten

Respecto a los daños generados en las explotaciones agrarias, UAGA está manteniendo conversaciones con las distintas administraciones para abordar las reparaciones en taludes y fincas y estudiando cómo reponer la tierra fértil arrastrada por el agua.

Estamos completando un registro de daños para trasladar la problemática a las administraciones, por lo que puedes contactar con UAGA para informarnos de tu situación.

En algunos casos, los daños alcanzan al 80-90% de los pastizales

Los daños provocados por jabalíes se acentúan en Nafarroa

Cazadores profesionales y abrir alguna línea de actuación con seguros, posibles soluciones

La expansión cada vez más incontrolada de la población de jabalíes está incrementando de manera considerable los daños que provoca esta especie en Nafarroa. Sobre todo en lo que se refiere a los pastizales de la zona norte, con especial incidencia en las áreas de Baztan, Erroibar y Amescoas.

Como consecuencia de ello, EHNE llevó a cabo hace unas semanas una reunión con ganaderos afectados para la búsqueda de soluciones que puedan paliar este problema. Así, se volvió a reincidir en la creación de la figura de los cazadores profesionales, una reivindicación que lleva reclamando el sindicato desde hace varios años, pero que no encuentra respaldo político a la hora de incluirse la obligada partida en los Presupuestos navarros.

Estos dispondrían de un mayor margen para poder abatir ejemplares en aquellos lugares donde existe una considerable afección a las explotaciones -ampliar el número de días en los que se pueda cazar-, así como poder hacerlo en las reservas naturales, donde actualmente está prohibido realizar cualquier tipo de actividad cinegética, lo que obligaría a cambiar dichas áreas a la figura de refugio, donde sí se puede cazar con limitaciones.

Todas estas propuestas ya se han trasladado a la Dirección General de Medio Ambiente del Gobierno de Nafarroa, de cara a que sean tenidas en cuenta para poder controlar la desmesurada expansión de esta especie en el territorio.

Otro ámbito a explorar es el de abrir una línea de actuación con las compañías aseguradoras, con el objetivo de que contemplen los pastizales como zonas de cultivo -no son considerados así ahora-, de tal forma que los daños queden bajo su paraguas protector mediante la contratación de la correspondiente póliza.

Aunque por el momento no hay constancia de ningún caso que se haya producido, EHNE también pone de manifiesto la amenaza latente de posibles contagios de enfermedades como la peste porcina que la población de jabalíes puede transmitir a la ganadería.

Incluida enmienda para inversiones en infraestructuras locales ganaderas

A propuesta de EHNE, los Presupuestos Generales de Nafarroa han incluido una enmienda para aumentar la partida de “Inversiones en infraestructuras locales ganaderas”, que pasará de los 1.147.440 euros iniciales a los 1,5 solicitados. El sindicato argumentó dicha propuesta en el hecho de que durante los últimos años se está ejecutando el cien por cien de dicho dinero, signo inequívoco de la necesidad que existe de llevar a cabo dichas actuaciones en áreas ganaderas.

Por otra parte, y teniendo en cuenta que a corto plazo se va a poner en marcha la estrategia europea “De la granja a la mesa”, en la que la ganadería extensiva juega un papel crucial, EHNE-Nafarroa entiende que la creación y mejora de las actuales infraestructuras a nivel local (pistas, abrevaderos, cierres, etc.) para poder acceder de manera óptima a los pastos comunales es una inversión que redundará en la sostenibilidad rural y medioambiental.

Acceso a pastizales

Lurzaindia elkartearen presidentea errugabe jo du epaileak

Arbonako Herriko Etxeak etxebizitzak eraikitzeko nekazal lurrak 50 aldiz garestiago erosi zituela esan zuen Lurzaindiak 2018an

2018an Lurzaindiak Arbonako Herriko Etxeak etxebizitzak eraikitzeko nekazal lurrak 50 aldiz garestiago erosi izana salatu zuen eskuorri batzuen bidez. Marie-Josee Mialocq auzapezak difamazioagatik salaketa jarri zion erakundeari. Pasa den azaroaren 30ean epaiketa izan zuten eta epaia abenduaren 14an argitaratu zen: epaileak errugabe jo du Dominique Amestoy Lurzaindiako presidentea. "Erabaki horren bidez Lurzaindiak laborantza lurrak babesteko egiten duen lana hobetsi du auzitegiak", adierazi du Amestoyk. Amestoyren arabera, elkarteak ez du inoiz pertsonarik jarri jomugan eta errespetuz jardun du beti laborarien eskubideak defendatzeko asmoz. Lurzaindia elkarteak espekulazioaren aurkako engainamenduarekin jarraituk duela berretsi du.

SALAKETAREN BERRI EMANEZ EGINDAKO PRENTSAURREKOKO IRUDIA

Espekulazioa salatuz

"Laborantzarako lurra bere balioa baino kasik 50 aldiz karoago erosiz, espekulazioa bultzatzen da eta laborantzarako aktibitatea izugarri kaltetzen, bereziki herri batengatik egina delarik", adierazi zuen Lurzaindia elkarteak aipatu eskuorrian. Antza denez, etxebizitzak eraikitzeko lur sailaren hektarea 333.330 euroan erosi zuen Herriko Etxeak, lur horien balioa hektareako 7.000 euro ingurukoa zenean. Lurzaindiaren arabera, 2017ko ekainean Arbonako Herriko Etxeak udalerriko 2013ko Hirigintza planean nekazal lur gisa izendatuta zituen 14.871 metro koadroko lur zatia erosi zuen 550.000 euroan, gero etxebizitzak eraikitzeko lur sail gisa erabiltzeko. 2017ko abuztuan auzapezak Obratze baimena onartu zuen, baina urrian Lurzaindiak lanak geldiarazteko prozedura hasi zuen. Horren harira, 2018ko apirilean Paueko Auzitegi Administratiboak Obratze Baimena bertan behera uztea debilberatu zuen.

Geeenetika, ardiak hobeeetzeko



Berria egunkarian, Jakes Goikoetxeak argitaratutako erreportajea

Artzaintza ez da, ziur aski, Ikerketa, Garapena eta Berrikuntzarekin (I+G+B) lotzen den jarduera edo sektore bat; baina artzaintzak ere badu beste jarduera teknologikoagoei lotu ohi zaien hobekuntzarako oinarria. Artzaintzaren irudi bukolikoak ezkutuan utzi ohi du artzainen lana; baita ardiak eta artaldeak hobetzeko ikerketa ere. Urteak dira, ordea, Euskal Herriko artaldeetan ebaluazio, hautaketa eta hobekuntza genetikoa aplikatzen dela.

Orain urrats bat gehiago egin dute: ardien DNAren azterketa txertatu dute hobekuntza genetiko horretan. Ardi izeneko proiektua baliatu dute horretarako, Europako Batasunaren diruz lagundua.

Latxa, manex eta euskal-biarnes ardi hobeak nahi dituzte: esne gehiago emango dutenak, sendoagoak, klimaren gorabeherei hobeto aurre egingo diotenak, errapeetan arazorik izango ez dutenak... Ardi hobeak eta artzainentzat errentagarriagoak, artaldeei eta haien bizimoduari eutsi ahal izan diezaieten.

"Gizarteak gauza asko eskatzen ditu". Eskaera horietako batzuk zerrendatu ditu Eva Ugartek, Neiker zentro teknologikoko genetikari eta ikertzaileak, eta Ardi proiektuaren arduradunak: "Paisaia ederrak edukitzea, mendiak garbi egotea, landa eremuetan jendea bizitzea eta jarduera ekonomikoa egotea...".

Baldintza horiek guztiak Euskal Herriko latxa, manex eta euskal-biarnes arrazekin, haien iraupenarekin eta kudeaketarekin lotu ditu: "Horretarako ezinbestekoak dira arraza horien ekoizpen sistemak. Badaude askoz ere esne gehiago ematen duten ardi arrazak, baina ukuiluan egoten dira; ardi latxek-eta hiru edo bost hilabete egiten dituzte mendiko larreetan. Onak dira gizartearentzat, baina artzainaren bizibide izan behar dute. Ezin diegu artzainei hori guztia eskatu, artzainak ezin badira artzaintzatik bizi".

Neikerrek eta Euskal Herriko beste

Buscan mejorar a través de la innovación la vida de las ovejas y los y las pastoras

En el proyecto Ardi participan INRA, IDEL, CDEO, Aslana, Ardiekin y Neiker

Proyecto ARDI

El proyecto ARDi ha incorporado el ADN de las ovejas para la mejora genética. Quieren mejores ovejas latxa, manex y vasco-biarnés: que den más leche, que sean más sólidas, que afronten mejor los avatares del clima, que no tengan problemas en las ubres... Mejores ovejas y más rentables para los y las pastoras para que puedan mantener sus rebaños y su forma de vida.

hainbat erakundek berrikuntzaren bidez hobetu nahi dituzte ardiak eta artzainen bizimodua. Ardi proiektuan bat egin dute INRAk (Frantziako Nekazaritza Ikerketako Institutu Nazionala), Idelek (Frantziako Abeltzaintza Institutua), CDEOk (Pirinio Atlantikoetako Ardiak Hazteko Zentroa), Aslanak (Nafarroako Latxa Arrazako Hazleen Elkartea) eta Ardiekin zentroak (ardi latxen eta Karrantzako ardien hautaketa eta intseminazio artifizialerako). Neiker arduratu da proiektua gidatzeaz eta koordinatzeaz.

La fiabilidad de las recomendaciones ha mejorado añadiendo el estudio de ADN de las ovejas

Artzainen elkarteetako teknikariak hilean behin joaten dira Neiker zentro teknologikoaren hobekuntza genetikorako programan parte hartzen duten artzainen artaldeetara. 180 artalde, 70.000 arditik gora. Neurtu egiten dute ardi bakoitzak zenbat esne ematen duen. Ez hori bakarrik. Ardi bakoitzaren historia osatzen dute: zer baldintzatan eman duen, adina, umeak egin dituen edo ez, zenbat arkume, noiz... "Horrez gain", osatu du Ugartek, "ardi horien genealogia osatzen dugu". Ardi bakoitzaren senideak zein eta nolakoak diren.

Buscan ovejas que se adapten mejor al cambio climático y las fluctuacciones climáticas

BIOINFORMATIKA

Milaka datu horiek guztiak bildu, kalkulu matematikoekin eta bioinformatikarekin landu, eta Neikerrek artzainei esaten die zeintzuk diren artaldeko ardirik onenak, eta zeintzuk diren ahari onenak, horiek erabil ditzaten hurrengo ardien belaunaldiak sortzeko.

Neikerren gomendioen fidagarritasuna %50 ingurukoa zen aharien aita eta ama bakarrik ezagutzen zituzten kasuetan; orain, berriz, %70-80 ingurukoa. Nola? Aurreko datuei eta kalkuluei ardien DNAren azterketa gehituta.

Esne gehiago emango duten ardi latxa, manex eta euskal-biarnes ardiak nahi dituzte, baina ez daude identifikatuta zeintzuk diren ardien esne ekoizpenean eragiten duten geneak. "Agian badakigu gene bat oso garrantzitsua dela, baina beste mila gene egon daitezke inplikatuta, eta ez ditugu ezagutzen", Ugarteren arabera.

Gene zehatzak ezagutzen ez dituztenez, ardien DNAn ausazko azterketak egiten dituzte. Ardien DNAko 50.000 markatzaile aztertzen dituzte, ausaz hautatuak. "Mila markatzaile izango balira, oso gutxi lirateke; baina 50.000 dezente dira, zerbait baldin badago, ikusteko", azaldu du Ugartek. Markatzaile horietako bakoitzak, berez, garrantzi txikia du, baina guztiak batuta, informazio baliagarria eskaintzen diete.

Ardi bakoitzaren DNAko 50.000 markatzaileek emandako informazioa esne ekoizpenari eta genealogiari buruzkoekin konbinatzen dute. Esne asko ematen duten ardien 50.000 markatzaile horietan ezaugarri jakin

Latxar ardi muturbeltzak larrean

batzuk errepikatzen badira, informazio genetiko hori esne ekoizpen handiari lotzen diote. “Informazio guztia batu egiten dugu”, argitu du Ugartek. “Orain azkarrago esan dezakegu ardi bat onena edo egokiena dela ardia esnea ematen hasi aurretik, eta gure iragarpenak zehatzagoak eta fidagarriagoak dira”.

Artzainentzat oso garrantzitsua da ardiek ematen duten esne kopurua. Baina Ugartek nabarmendu du gero eta garrantzitsuagoak bihurtzen ari direla hobekuntza genetikoko programaren bidez ikertu eta hobetu daitezkeen beste ezaugarri batzuk: alde batetik, esnearen gantz eta proteina proportzioa, gazta egiteko garrantzitsua; bestetik, ardien errapeen morfologia, hau da, ea errapeek forma egokia duten esnea emateko, arkumeek edateko eta makinak jezteko. Hobekuntza genetikoaren bidez esan dezakete ea etorkizunean zer ardik izango dituen errape onak.

Klima aldaketari egokituak

Klima aldaketari eta klimaren gorabeherei hobeto egokitzen zaizkien ardiak ere bilatu nahi dituzte. Aldaketak aldaketa, esne ekoizpenari eutsiko dioten ardiak. “Muturreko fenomenoak gero eta ohikoagoak dira, eta eragin handia dute ardien esne ekoizpenean”, zehaztu du Ugartek. Ardien genetika, klima eta esne ekoizpena uztartu dituzte: artalde bakoitza dagokion Euskalmeteko estazio meteorologikoarekin lotu, eta eguraldiaren eguneroko datuak ardi bakoitzaren esne ekoizpenarekin konbinatu. Emaitza: “Gai izan gara ikusteko genetikoki animalia batzuk besteak baino hobeto moldatzen direla”.

Lehen ere ohikoa zen Iparraldeko eta Hegoaldeko ikertzaileen eta artzainen arteko elkarlana. Ezagutza eta esperientziak trukatzea. Harremanak eta lankidetza estutu ditu Ardi proiektuak. Iparraldean Hegoaldean baino hogei bat urte lehenago hasi ziren ardien hobekuntza genetikoko programak ezartzen. 120.000 ardik parte hartzen dute programa horietan.

“Egoera bera da, ardien ezaugarri berak lantzen ditugu eta konfiantza handia dugu elkarrekin”, nabarmendu du Ugartek. Ezaugarri berak landu bai, neurtu eta aztertu ere bai, baina irizpide ezberdinekin. Irizpideak eta tresnak bateratu egin dituzte, datuak alderatu ahal izateko.

Ikerketa ildo berriak ere zabaldu dituzte: gaixotasunen kontrako erresistentzia hobea duten eta sendoagoak diren ardiak bilatzea. “Artzainak ez du bakarrik bilatzen esne asko ematen duena”, Ugarteren arabera. “Ardi sendo bat behar du”. Baina zer da ardi sendo bat? Esne litroak erraz neurtzen dira; nola neurtu, ordea, sendotasuna? Iparraldeko eta Hegoaldeko artzainak eta ikertzaileak elkarrekin lantzen hasi dira.

Proiektuaren barruan erakunde berri bat ere sortu dute: Artaldean. Hobekuntza genetikorako programak bateratzea izango du helburu. Ez da erraza izango, Frantziako eta Espainiako administrazioen mugak eta oztopoak gainditu beharko baitituzte. “Guk nahi dugu, ardia bera da [latxaz eta manexaz ari da], baina gero ezin da», dio, etsipenez, Ugartek. Ardi latxa eta manex ardiak arraza ezberdintzat hartzen dituzte batzuek; arraza bera direla diote besteek. “Denbora askoan elkarrengandik banatuta egon direnez, badaude ezberdintasun morfologiko txiki batzuk, baina guretzat berdinak dira”, argitu du Ugartek. “Guk erabiltzen dugu manex ardien hazia gure ardi latxen artaldeetan. Guretzat berdinak dira”. Ardi proiektua bukatzear dago, baina elkarlanak jarraituko du.

"Elkarlan horretan lanak komunean jarri behar zirela ikusi genuen"

Ardiekin Ardi proiektuko parte da, Euskal Autonomia Erkidegoko Latxa eta Karrantza arrazako ardien intseminazio zentroa. Bertako teknikaria da Lourdes Mintegi. Zergatik ekin diozue Ardi proiektuan parte hartzeari?
Aurrez ere kolaborazioa egon da Manex eta latxa arrazarekin lan egiten dugun zentroen artean, izan ere, latxa arrazaren hobekuntza plana martxan jarri zenean lagundu gintuzten, ordurako 20 urte baitzeramaten Manexarekin lanean. Elkarlan horretan ikusi genuen bakoitzak bere aldetik egiten zituen lanak komunean jarri behar zirela, egin beharreko ikerketak, lanak edo ekintzak elkarrekin edo behintzat antzera egiteko. Proiektu honek gainera, jarraipena izango du. Europa mailan bertako arraza txikiei, Manexari eta Latxari, indar gehiago emateko talde bat sortzea izan zen beste helburuetako bat. Artaldean elkartea sortu dugu eta artzainek begi onez hartu dute.

> *"Hemos creado un grupo para impulsar nuestras pequeñas razas autóctonas: Artalde"*

Beraz, Ardi proiektuak ez du iraungitze datarik?
Orain arte batik bat Manexarekin lanean ari direnekin batera genetika alorrean egin dugu lan, izan ere, guk bi arraza gisa sailkatzen ditugun arren, ardiek ez dute muga administratiborik ezagutzen eta elkartrukatzea beti egon da. Orain arteko lanak genetikaren arlorrean egin ditugu, baina hemendik aurrera ez da soilik genetikari buruzkoa izango, dagoeneko hainbat eremu ikusi baititugu elkarrekin jorratu beharko ditugunak elkarlana sendotzen joateko.

Lourdes Mintegi
ARDIEKIN-EKO TEKNIKARIA

Artzainak noiz hasiko dira elkarlan honen emaitzak sumatzen?
Proiektu honek balio izan digu elkar gehiago ezagutzeko. Latxarekin lan egiten duten artzainek Manexarekin lan egiten dutenak bisitatu dituzte eta alderantziz. Bisita horietan ikusi dute elkarren arteko konfidantza sendotzen joan dela. Hurrengo pausoak izango dira bilera horiek maizago egitea edota bisita gehiago egitea. Eta bestetik, alde teknikoago batetik, Manex burubeltzaren eta Nafarroako muturbeltzaren artean premiazkoa ikusten dugu elkarlana eta aurki hasiko dira bide horretan pauso gehiago ematen. Era berean, balorazioa orokorra egin nahi dugu. Eta emaitza horiek guztiak epe motzean edo ertainean ikus ahalko dira eta espero dut artzainei lehiakorragoak izateko balio izatea.

Zein harrera izan du artzainen artean?
